



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko abenduaren 10a

146. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00163. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita legegintzaldia bukatu aitzin Arraizko saihebidetaren obrak lizitzatzeko prozedura abiaraz dezan. EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).
- 11-25/MOC-00164. Mozioa, Foruzangoak kriminalitateari buruzko txostenak taxutu eta argitaratu ditzan, Ertzaintzak jada aplikatzen duen eta Mossos d'Esquadrak ezarri nahi duen xehetasun eta gardentasun maila berarekin. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00165. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioko Ministerioa premia dezan Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak berriro komunika diezazkion Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Ikuskaritza Medikoari Nafarroako enpresetako langileei buruzko datu-baseak. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/POR-00424. Galdera, nekazaritzako plastikoak kudeatzeko baimena duten kudeatzaileei buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (7. or.).
- 11-25/POR-00425. Galdera, Eliza Katolikoak landa-lurzoruan immatrikulatutako herri-ondasunen gaine-ko hitzarmenari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (7. or.).
- 11-25/POR-00426. Galdera, Nafarroako funtzionario publikoentzako hobekuntzak onesteari buruzkoa. Ramón Alzorri Goñi jaunak egin du (8. or.).
- 11-25/PES-00427. Galdera, Toki-administrazioko erretiro partzialei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00428. Galdera, animaliak babesteko kontsulta batzordeari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/PES-00429. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren lan-jardunaldietatik heldu diren proposamenen txostenari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (10. or.).

- 11-25/PES-00430. Galdera, Nafarroako enpresen 2024ko kenkari fiskalen zenbatekoari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00431. Galdera, Hezkuntza Departamentuaren eta Autismoaren Nafarroako Fundazioaren arteko hitzarmenari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00432. Galdera, Herri-lanetako zerbitzuruak konplexutasun eta zenbateko handieneko obren kontratuen kontratazio-mahaietan sartzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00433. Galdera, “Hiri Zirkularra” proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00434. Galdera, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikulua 2 b) apartatua ezarritako murrizketak aplikatzeko datari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00435. Galdera, Espainiako Gobernuaren beken eskumena lagatzearen aurka egoteko arrazoiei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00436. Galdera, BAI fundazioaren eta BAI programaren finantzaketari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00437. Galdera, hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeari eta formakuntza euskaraz emateari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/OSSL-00010. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 35. artikulua garatzeko arauak aldatzea (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-25/MOC-00163. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita legegintzaldia bukatu aitzin Arraizko saihebiderearen obrak
lizitzatzeko prozedura abiaraz dezan**

EH BILDU NAFARROA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita legegintzaldia bukatu aitzin Arraizko saihebiderearen obrak lizitzatzeko prozedura abiaraz dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Bide-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea funtsezkoa da bide-segurtasuna bermatzeko, pertsonak babesteko, landaguneetako bizi-kalitatea zaintzeko eta despopulazioa geldiarazten lagunduko duen garapen ekonomiko orekatu eta jasangarria bultzatzeko.

Testuinguru horretan, Arraitzek bizi duen egoera lehen mailako arazoa da, Nafarroako Gobernuak lehentasunezko arreta ematea exijitzen duena.

Herrigunea zeharkatzen duen NA-4230 errepi-dea da N-121-A errepidetik Elordi industrialderako sarbide bakarra. Horren ondorioz, Arraitz nahitaezko igarobide bihurtzen da salgaiak, langileak eta industrialdeari lotutako zerbitzuak garraiatzeko, bai eta bide-alternatiba egokiagorik ez duten beste eremu batzuetatik heltzen diren gainerako ibilgai-luentzat ere.

Hirurogeita hamarrek hamarkadan, Arraizko bizilagunak prest agertu ziren saihebidere bat erai-ki zedin, eta azpiegitura horretarako behar ziren lurzati- desjabetzeak duela urte batzuk amaitu ziren.

Gaur, hamarkada batzuk geroago, are larriagoa da saihebidere horren beharra. Elordiko industrial-dea nabarmen hazi da, eta hazten jarraitzea aurrei-kusten da, halako moduan non industria ezinbesteko motor ekonomiko gisa, lurralde-orekarako elementu estrategiko gisa eta despopulazioaren aurkako borrokarako funtsezko tresna gisa finkatu-ko bailitzateke.

Motor ekonomiko horren jarraitutasuna eta jasangarritasuna, neurri handi batean, azpiegitura seguruak, efizienteak eta modernoak izatearen mende dago.

Egungo egoerak trafikoari eta bide-segurtasu-nari ez ezik, herriguneko etxebizitzaren osotasunari ere eragiten dio. Kamioi astunek maniobra arrisku-tsuak egin behar izaten dituzte kale estuetan, eta behin eta berriro eragiten dituzte kalte materialak: talka egiten dute balkoien kontra, zorrotan erau-zi, izkinak hondatu eta fatxadak kolpatu.

Arraitz zeharkatzen duen bide batean zirkulazio astunaren kontzentrazio handiak, 90 graduko bi bihurgunerekin eta zabalera txikiko eremuekin –3,2 metro bi noranzkoetan–, etengabeko arriskuak eragiten dizkie oinezkoei eta gidariei, eta, gainera,

kalteak eragiten ditu behin eta berriro etxebizitzetan eta ibilgailuetan.

Beraz, Arraizko saihebidia eraikitzea lehentasuneko esku-hartzea da bide-segurtasuna hobetzeko, herritarren bizi-kalitatea bermatzeko eta eskualde osoan garapen ekonomiko iraunkorra bul-tzatzeko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legegintzaldia bukatu aitzin Arraizko saihebidearen obrak lizitzatzeko prozedura abiaraz dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 21ean

Foru parlamentariak: Mikel Zabaleta Aramendia eta Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/MOC-00164. Mozioa, Foruzaingoak kriminalitateari buruzko txostenak taxutu eta argitaratu ditzan, Ertzaintzak jada aplikatzen duen eta Mossos d'Esquadrak ezarri nahi duen xehetasun eta gardentasun maila berarekin

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, Foruzaingoak kriminalitateari buruzko txostenak taxutu eta argitaratu ditzan, Ertzaintzak jada aplikatzen duen eta Mossos d'Esquadrak ezarri nahi duen xehetasun eta gardentasun maila berarekin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean egin dakion jarraipena:

Zioen azalpena

Herritarren segurtasuna funtsezko zutabeetako bat da bizikidetzan, eskubide eta askatasunen baliatzea eta herritarren ongizatea bermatzeko. Beraz, lehentasun bat izan behar du Nafarroako erakundeentzat, eta funtsezko elementu bat nafarren konfiantza indartzeko, kezka ikusten baitute kriminalitateak gora egin duela Nafarroako Foru Komunitatean. Izan ere, zenbait inkestaren arabera, Nafarroako herritarren segurtasunik ezaren pertzepzioak gora egin du azken urteotan.

Gure erkidegoak segurtasun publikoaren arloan dituen erroka berriei eta mehatxu nagusiei erantzun eraginkorra diseinatu eta eskaintzeko, ezinbestekoa da informazio osoa izatea, Nafarroan delinkuentziaren bilakaerari buruzko diagnostiko fidagarriak egitea ahalbidetuko duten datu zorrotz, periodiko eta gardenekin.

Illo horretan, Ertzaintzak kriminalitateari buruzko txosten bat argitaratu berri du, adierazle berriak jasotzen dituena; besteak beste, atxilotutako eta ikertutako pertsonen buruzko estatistika-xehakapena, irizpide hertsiki teknikoei jarraikiz. Mossos d'Esquadrak ere bere eskumen-esparruan antzeko metodologiak aplikatzeko asmoa duela iragarri du.

Ekimen horien helburua ezagutza kriminologikoa hobetzea, polizia-plangintza optimizatzea, gardentasun indartzea eta distortsionatutako interpretazioak saihestea izan da, datu publiko egiaztagarriak emanez.

Egia da Foruzaingoak kriminalitatearen arloko aldizkako txostenak egiten dituela gaur egun, delituen tipologiari edo atxiloteten kopuruari buruzko estatistikak jasotzen dituztenak, baina txosten horietan ez dira sartzen beste polizia autonomiko batzuek duela gutxi sartutako zenbait adierazle, hala nola gure erkidegoan delitu-ekintzak egiteagatik atxilotutako edo ikertutako pertsonen jatorriari buruzkoak.

Lurraldeen arteko lankidetzak eta gardentasunak erakundeak indartzen dituzten testuinguru honetan, beharrezkoa da gisa horretako analisiereduetarantz jotzea. Gardentasunak funtsezko elementua izan behar du politika publikoetan, eta datu osoak emateak aukera ematen die nafarrei Nafarroako Foru Komunitateko delinkuentziaren errealitatea zehatz-mehatz ezagutzeko, errealitate horren pertzepzio distortsionatuak eratzea saihesten du eta politika eraginkorrak gauzatzeko eta haien emaitza zehatzago baloratzeko aukera ematen dieten tresnak ematen dizkie administrazioei.

Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) eta Barne Ministerioak estatistika ofizial jakin batzuekin egiten duten bezala, datu horiek argitaratzearen helburua ez da jatorriaren arabera zehaztutako kolektibo bati eraso egitea edo kolektibo bat seinalatzea, baizik eta gardentasun instituzionalaren oinarrizko printzipio bati erantzutea eta segurtasun-politikak informazio egiaztagarrian oinarritu daitezen ahalbidetzea, segurtasun publikoaren arloko erantzuna berme handiagoz emateko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki-proposamen hau onesten du:

1. Foruzaingoak kriminalitateari buruzko txostenak egin eta argitara ditzan bultzatzea, Ertzaintzak dagoeneko aplikatzen duen eta Mossos d'Esquadrak ezartzea aurreikusten duen xehetasun-eta gardentasun-mailarekin, adierazleen artean atxilotutako eta ikertutako pertsonen buruzko datu banakatuak emanez, hala nola jatorria, indarrean dagoen araudiaren arabera.

2. Metodologia-esparru homogeneo eta objektibo bat garatzea, datu horiek beste polizia autonomiko batzuen txostenekin eta Barne Ministerioaren txostenekin alderatu ahal izateko, helburu estatistiko eta operatiboetarako soil-soilik erabiliko direla bermatuz.

3. Datu horien bilketak eta argitalpenak datuen babesaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia zorrotz betetzen duela ziurtatzea, eta, horretarako, behar diren neurriak hartzea, informazioaren edozein erabilera bidegabe edo interpretazio partzial saihesteko.

4. Nafarroako Parlamentura bidaltzea, gehiezin ere sei hilabeteko epean, neurri horien bideragarritasun tekniko eta juridikoari buruzko txostena, bai eta horiek ezartzeko egutegia ere.

Iruñean, 2025eko azaroaren 25ean

Eleduna: Javier García Jiménez

11-25/MOC-00165. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioko Ministerioa premia dezan Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak berriro komunika diezazkion Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Ikuskaritza Medikoari Nafarroako enpresetako langileei buruzko datu-baseak

DOMINGO GONZÁLEZ MARTINEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioko Ministerioa premia dezan Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak berriro komunika diezazkion Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Ikuskaritza Medikoari Nafarroako enpresetako langileei buruzko datu-baseak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasunaren erregistroan (Rit@), Nafarroako Gizarte Segurantzako araubideren batean Nafarroan afiliatutako pertsona guztien baja-, alta- eta berrespen-

parteak jasotzen dira. Erregistro horrek 1998tik Nafarroako Gizarte Segurantzako araubideren batean afiliatutako langileei emandako aldi baterako ezintasuneko prozesuen % 100 biltzen du.

2020ko abendura arte, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak hiru hilean behin bidaltzen zizkion Nafarroako langileen datu-baseak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari. Datu-base horietan jasota zeuden zer enpresatan lan egiten zuten, haren EJSNa, kontratu-mota, eta abar, eta horrek aukera ematen zuen baja medikoan edo altan zegoen langilearen identitatea lotzeko.

Aldizkakotasun berarekin, Diruzaintzak Nafarroan dauden enpresei buruzko informazioa bidaltzen zuen, eta, beraz, modu dinamikoan ezagutzen genituen gure lurraldeko enpresa-sarearen benetako ezaugarriei buruzko datuak, jarduerari, langile kopuruari, lurralde-kokapenari eta abarri dagokienez.

2020ko abendutik, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak informazio hori bidaltzeari utzi zion.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioko Ministerioa premia dezan Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak berriro komunika diezazkion Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Ikuskaritza Medikoari Nafarroako enpresetako langileei buruzko datu-baseak.

Iruñean, 2025eko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00424. Galdera, nekazaritzako plastikoak kudeatzeko baimena duten kudeatzaileei buruzkoa*OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, nekazaritzako plastikoak kudeatzeko baimena duten kudeatzaileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako nekazaritza-ekoizpenean ohikoa da plastiko mota desberdinak erabiltzea piperrak, zainzuriak eta beste produktu batzuk ekoizteko. Plastiko horien bizitza baliagarria amaitu ondoren, kudeatzaile baimenduen bidez kendu behar dira nekazaritza-lurretatik.

Zeintzuk dira Nafarroan nekazaritzako plastikoak kudeatzeko legez baimendutako kudeatzaileak?

Iruñean, 2025eko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-25/POR-00425. Galdera, Eliza Katolikoak landa-lurzoruan immatrikulatutako herri-ondasunen gaineko hitzarmenari buruzkoa*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Eliza Katolikoak landa-lurzoruan immatrikulatutako herri-ondasunen gaineko hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den asteazkenean, azaroak 26, informazio-saio bat izan zen Iruñean, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak eta Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak batera deitua, Elizak landa-lurzoruan immatrikulaturiko herri-ondasunak

direla-eta bi erakundeen arteko hitzarmen baten bidez garatutako ikerketa-prozesuari buruz.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak elizak landa-lurzoruan immatrikulatu dituen herri-ondasunak direla-eta Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko hitzarmenaren garapenari buruz?

Iruñean, 2025eko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/POR-00426. Galdera, Nafarroako funtzionario publikoentzako hobekuntzak onesteari buruzkoa

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako galdera, Nafarroako funtzionario publikoentzako hobekuntzak onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Batzordean ahoz erantzuteko.

2028ra arte langile publikoen lan- eta soldata-baldintzak hobetzeko Espainiako Gobernuak eta sindikatuek lortutako akordioaren ondoren, eta hobekuntza horiek Nafarroako enplegatu publikoei ere eragiten dietenez, honako hau galdetzen dugu:

Noiz aurreikusten du Nafarroako Gobernuak gobernu-bilkuran onartzea Nafarroako funtzionario publikoentzako egokitzapena eta hobekuntzak?

Iruñean, 2025eko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

11-25/PES-00427. Galdera, Toki-administrazioiko erretiro partzialei buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Toki-administrazioiko erretiro partzialei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Toki Administrazioiko Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

2025eko apirilaren 1ean sartu zen indarrean erretiro-pentsioaren eta lanaren arteko bateragarritasuna hobetzeko 11/2024 Errege Lege-dekretua, abenduaren 23koa, zeinak 62 urtera aurreratzen baitu administrazio publikoetako lan-kontratudun langileek erretiro partziala hartzeko aukera.

Jakin dugunez, Nafarroako udaletan erretiro partzial horien izapidetzea geldirik dago; izan ere, Toki Administrazioiko Departamentuari kontsulta egin ondoren jakiteko ea erreleboa hartzen duenak langabezian egon behar duen, departamentu horrek erabaki du baldintza horrek hautsi egiten duela enplegu publikoa eskuratzeko berdintasun-printzipioa.

Hala ere, jakin badakigu erretiro partzialeko prozesu horiek aurrera eramaten ari direla, bereziki Estatuko Administrazio Orokorrean, baina baita autonomia-erkidegoetan eta Espainiako udaletan ere, Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak 2025eko martxoaren 28ko Ebazpenaren bidez emandako jarraibideen arabera.

Gainera, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak 14/2025 kudeaketa-irizpidea eman du,

2025eko uztailaren 21ekoa, administrazio publikoetako lan-kontratudun langileei erretiro partziala aplikatzeari buruzkoa, non azken batean adierazten baitu ez duela eskatuko erreleboa hartzen duena langabezian egotea.

– Toki Administrazioiko Departamentuak ba al daki zenbat pertsona dauden paralisi-egoera horren eraginpean?

– Zenbat dira Nafarroako udaletan, eta zenbat Nafarroako Gobernuan bertan, araudi berriaren arabera erretiro partziala eskatu dutenak?

– Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren instrukzioa eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren kudeaketa-irizpidea ikusita, zein epetan aurreikusten du Toki Administrazioiko Departamentuak blokeo-egoera bideratzea, aipatutako ebazpena eta irizpidea betez?

– Kontuan hartuta jakin dakigun moduan maila guztietako beste administrazio batzuk (estatukoa, autonomia-erkidegokoa eta tokikoa) erretiro partzialak ematen ari direla, argi dago diskriminazio negatiboa gertatzen ari dela Nafarroako administrazioetako lan-kontratudun langileentzat. Bidezkoa al da diskriminazio hori?

– Hori horrela izanik, Nafarroako administrazioetako lan-kontratudun langileei kalte egiten ari zaie, eta, unea iristen denean, eta lehen aipatutako diskriminazioa ikusita, kalte-ordainak eskatzen ahalko dituzte. Ebaluatu al duzue zer kostu izan dezakeen ukitutako administrazioentzat (Nafarroako Gobernua eta udalak)?

– Azkenik, Nafarroako udal askok beren indarreko hitzarmen kolektiboetan jasota daukate patronalak erretiro partzialak onartzeko betebeharrak duela, unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera. Hitzarmen kolektibo bat ez betetzeak zehapenak eta ordaina emateko bestelako ebazpen judizialak ekar ditzake, lan-auzitegiek emanak. Ebaluatuta al daude hitzarmen kolektiboak ez betetzearen ondorioak? Are gehiago, GSINren 2025eko uztailaren 21eko 14/2025 kudeaketa-irizpidea, administrazio publikoetako langile lan-kontratudunen erretiro partziala aplikatzeari buruzkoa, aplikatuta, kendu egiten bada erreleboa hartzen duena alde zuzenetik langabezian egoteko eskakizuna?

Iruñean, 2025eko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

11-25/PES-00428. Galdera, animaliak babesteko kontsulta batzordeari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, animaliak babesteko kontsulta batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer egunetan eratu zen animaliak babesteko kontsulta batzordea? Eman kideen zerrenda osoa.

Zer egunetan bildu da animaliak babesteko kontsulta batzordea? Bilerarik egin ez bada, zer egunetarako aurreikusten da urteko bilera?

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-25/PES-00429. Galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren lan-jardunaldietatik heldu diren proposamenen txostenari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren lan-jardunaldietatik heldu diren proposamenen txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer egunetarako aurreikusten da aurkeztea Parlamentuan Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren lan-jardunaldietatik heldu diren proposamenen txostena?

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-25/PES-00430. Galdera, Nafarroako enpresen 2024ko kenkari fiskalen zenbatekoari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Nafarroako enpresen 2024ko kenkari fiskalen zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zein izan da 2024ko ekitaldi ekonomikoan Nafarroako enpresei egindako kenkari fiskalen zenbatekoa?

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-25/PES-00431. Galdera, Hezkuntza Departamentuaren eta Autismoaren Nafarroako Fundazioaren arteko hitzarmenari buruzkoa

ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Hezkuntza Departamentuaren eta Autismoaren Nafarroako Fundazioaren arteko hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako

galdera hauek egiten dizkio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Otsailean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno eta Alegria Fundazioko lehendakari Amaya Arizek hitzarmen bat sinatu zuten, autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) edo horri lotutako nahasmendua duten ikasleei arreta emateko bi erakundeek dituzten baliabideen koordinazioa erraztuko duena.

– Hezkuntza Departamentuak zergatik sinatu du akordio hori?

– Zein izan da erabaki hori hartzeko jarraitu den prozedura?

– Erabaki horretan zer inplikazio-maila izan du CREENA-Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroak?

– Zer elkarrizketa- eta adostasun-maila egon da CREENAren zuzendaritzarekin?

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00432. Galdera, Herri-lanetako zerbitzuburuak konplexutasun eta zenbateko handieneko obren kontratuen kontratazio-mahaietan sartzeari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Herri-lanetako zerbitzuburuak konplexutasun eta zenbateko handieneko obren kontratuen kontratazio-mahaietan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Lurralde Kohesiorako Departamentuan nork eta nola erabaki zuen Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko hiru zerbitzuetako zuzendariak egonen zirela konplexutasun eta zenbateko handieneko obren kontratuen kontratazio-mahaietan, egokiago eta ikuspegi global batekin baloratzeko obren proposamen teknikoak, kontserbazioaren, proiektuen eta obren ikuskera multidiziplinarrak kontuan hartuta?

Nola eta nork jakinarazi zien ukitutakoei eta erabaki horren berri izan behar zuten gainerako pertsonen?

Iruñean, 2025eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-25/PES-00433. Galdera, “Hiri Zirkularra” proiektuari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, “Hiri Zirkularra” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Hiri Zirkularren proiektuari buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1.- Europako Next Generation funtsetan parte hartzeko zein kanaletara (dirulaguntzen deialdia, lizitazio publikoak edo ESEPEak) aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak "Hiri zirkularra" proiektua?

2.- Azkenean, zer ezaugarri zituen aurkeztutako proiektuak?

3.- Zer dokumentazio aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsak lortzeko?

4.- Zein entitatek ukatu zuen Next Generation funtsak "Hiri Zirkularra" proiektuari ematea?

5.- Zergatik ukatu zitzaizkion Europako Next Generation funtsak proiektu horri?

6.- Nola jakinarazi zioten Nafarroako Gobernuari?

Iruñean, 2025eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/PES-00434. Galdera, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikulua 2 b) apartatuan ezarritako murrizketak aplikatzeko datari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikulua 2 b) apartatuan ezarritako murrizketak aplikatzeko datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Noiztik aplikatzen ahal dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikulua 2 b) apartatuan ezarritako murrizketak?

Zer baldintza bete behar dituzte etxebizitzaren errentamenduek 2 b) apartatu horretan ezarritako murrizketa lortzeko, errentamendu-kontratua Etxebizitzaren Errentamendu Kontratuen Erregistroan erregistratuta egotearen baldintzaz gain?

Iruñean, 2025eko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-25/PES-00435. Galdera, Espainiako Gobernuaren beken eskumena lagatzearen aurka egoteko arrazoiei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Espainiako Gobernuaren beken eskumena lagatzearen aurka egoteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer arrazoi ematen du Espainiako Gobernuak beken eskumena Nafarroako Gobernuari lagatzearen aurka egoteko?

Iruñean, 2025eko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00436. Galdera, BAI fundazioaren eta BAI programaren finantzaketari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, BAI fundazioaren eta BAI programaren finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Nafarroako Gobernuak finantzatzen al du nolabait BAI Fundazioa? Hala baldin bada, zer arauditan oinarrituta eta zenbat dirurekin finantzatzen da hori?

– Nafarroako Gobernuak finantzatzen al du nolabait BAI programa? Hala baldin bada, zenbat dirurekin finantzatzen da hori?

– Nola kolaboratzen du Nafarroako Gobernuak BAI programarekin?

Iruñean, 2025eko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00437. Galdera, hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeari eta formakuntza euskaraz emateari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeari eta formakuntza euskaraz emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuak hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzeko 2025erako EH Bildurekin egindako aurrekontu-akordioaren arabera, Hezkuntza Departamentuak konpromisoa hartu zuen kolektibo horri euskarazko prestakuntza emateko.

Zer egin du Departamentuak horren inguruan?

Zer ikastaro ari dira ematen? Zein formatutan? Zer maila? Zer ikasle?

Iruñean, 2025eko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/OSSL-00010. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 35. artikulua garatzeko arauak aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko abenduaren 1ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelari nagusiak txostena aurkeztu du, Nafarroako Parlamenturako telekomunikazio-zerbitzuen kontratuko terminal mugikorrek direla-eta.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluaekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. eta 35. artikulua garatzeko arauetako seigarren, zazpigarren eta zortzigarren arauak, zeinak Mahaiak 2017ko irailaren 11n hartutako erabaki bidez onetsi baitziren. Testu hau izanen dute aurrerantzean:

“Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak ordenagailu eramangarri bana eta telefono mugikor bana emanen die foru parlamentariei eta Legebiltzarreko Lehendakarietzako Kabineteko langileei. Horiek azken belaunaldikoak izanen dira, eta Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoaren erabilera-arauak betez erabili beharko dira.

Zazpigarrena. Terminal mugikorrek banatzeko metodoaren arabera, legegintzaldia bukatzen denean, emandako telefono mugikorrek itzuli beharko dituzte foru parlamentariak.

Zortzigarrena. Legegintzaldi osoan foru parlamentari edo Legebiltzarreko Lehendakarietzako Kabineteko langile izan direnek aukera izanen dute Legebiltzarrak emandako ordenagailu eramangarriak erosteko, horien erabilera-bizitzaren balioa ordainuz gero –Parlamentuko Zerbitzu Informatikoei zehaztuko dute balio hori–; Parlamentuko Erregelamenduan aurreikusitako arrazoiren batengatik parlamentari izaera legegintzaldia bukatu aitzin galzten duten parlamentariak, berriz, gailu horiek itzuli beharko dituzte”.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuaren webgune ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias